



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

COVID-19A ETA ELIKAGAI FRESKOAK

LEA/AVC 425-SUST-2020

I. AURREKARIAK ETA XEDEA.....	1
II. SARRERA.....	3
III. HANDIZKAKO BANAKETA MERCABILBAO	6
IV. PRODUKTU GALKORRAK: PREZIOAK ETA KANTITATEAK	7
V. ONDORIOA	16

Dña. Alba Urresola Clavero, Presidenta
D. Rafael Iturriaga Nieva, Vocal
Dña. Enara Venturini Álvarez, Vocal
Dña. Ainara Herce San Martín, Secretaria

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Osoko Bilkurak, 2020ko azaroaren 20ko bileran, 425-PROM-2020 espedienteari buruzko txosten hau ematea erabaki du.

I. AURREKARIAK ETA XEDEA

1. 2020ko martxoan, COVID-19aren birusak sortutako pandemiak eta hori geldiarazteko premiak esku-hartze publiko bat justifikatu zuen, muturrekoa, eta alarma-egoera ezarri zen lurralde nazional osoan, krisi sanitarioari aurre egiteko¹, eta horrek zuzeneko eragina izan zuen giza jardueren alderdi guztietan.

Esku-hartze horrek, hein handiagoan edo txikiagoan, eragina izan zuen produktu eta zerbitzuen merkatu guztietan, eta horietako batzuetan zuzenean eta esplizituki haien hornikuntza eta funtzionamendua bermatzeko, bai eta abusuzko jokabideak saihesteko ere; horixe gertatu zen askotariko higiene- eta babes-produktuekin lotutako merkatuetan² eta hileta-zerbitzuetan³.

¹ [463/2020 Errege Dekretua](#), martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaratzeko duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko.

² [SND/233/2020 Agindua](#), zenbait informazio-betebehar ezartzen dituena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen Errege Dekretuak aurreikusitakoari jarraituz.

³ [SND/298/2020 Agindua](#), martxoaren 29koa, hil-beila, ehorzketa eta hiletak direla-eta aparteko neurriak ezartzen dituena COVID-19aren hedapena eta kutsapena mugatzeko.

[Agindua, 2020ko martxoaren 26koa](#), Osasuneko sailburuarena, SARS-Cov-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela-eta hileta-osasunaren arloan salbuespeneko neurriak hartzen dituena.



Alabaina, zenbait merkatu ez zituzten hain errotik esku hartu, baina haietan prezioak asko igo zirela eta gainprezio nabarmenak zeudela ikusi zen; hori gertatu zen gizartean dituzten ondorioengatik estrategikoak diren oinarrizko elikagaien merkatuetan eta, zehazki, produktu fresko eta galkorretan⁴.

2. Enpresen arteko benetako lehia dagoenean, enpresen jarduera zorroztu eta produkzio-baliabideak operadore edo teknika efizienteenen aldera lerratzen dira. Produkzio-efizientzia horri esker, kontsumitzaileak gutxiago ordaindu beharko du, edo produktu gehiago, askotarikoagoak eta kalitate hobekoak eskuratuko ditu, eta ondorioz, gizarte osoaren ongizateak gora egingo du.

Produktu freskoen prezioen gorabeheren atzean merkatu horien berezko lehiadynamikak egon daitezke, baina baita kontsumitzaileen kaltetan suertatzen diren lehiaren aurkako jarrerak ere, esaterako, eragile ekonomikoen arteko kolusio-itunak eta nagusikeriazko abusuak.

Hasiera batean, jokabide horiek ez daude lehiaren araudia aplikatzetik salbuetsita, nahiz eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT) III. tituluan nekazaritzako (NPE) eta arrantzako (APE) politika erkide bat ezartzen duen, eta bereziki babesten dituen horien xedeak. Ildo horretan, NPEren eta APEren xedeetako bat lehia eraginkorra mantentzea dela onartzen den arren, salbuespen batzuk ezartzen zaizkio EBFTren 101.-106. artikuluen aplikazioari –enpresei aplikatzen zaizkien lehia-arauak–, politika horiek funtzionatzea eta xedeak betetzea bermatzeko⁵.

3. 15 asteko alarma-egoera eragin zuen COVID-19aren pandemiaren testuinguruan, txosten honen aztergaia da: oinarrizko elikagai fresko batzuen handizkako prezioek 35 astean zehar –15 aste alarma-egoeran eta aurreko eta ondorengo 10 asteak– izandako bilakaera, eta prezio horien osaera merkatuaren berezko lehia-egoeraren arabera izan ote zen ikustea.

⁴ [La Sexta: 2020ko apirilaren 17ko Noticias 20:00 saioaren arabera \(00:38:45\)](#), zenbait produkturen prezioek supermerkatuan izandako igoera jatorrian izandakoa baino nabarmen handiagoa izan zen, hala nola, laranja, mandarinenak, albarjiniak eta azenarioak.

⁵ [1308/2013 \(EE\) Erregelamendua](#), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 17koa, zeinaren bidez nekazaritza-produktuen merkatu-antolakunde erkidea sortzen baita eta 922/72 (EE) Erregelamendua, 234/79 (EE) Erregelamendua, 1037/2001 (EE) Erregelamendua eta 1234/2007 (EE) Erregelamendua indargabetzen baitira. (IV. zatia) [1380/2013 \(EB\) Erregelamendua](#), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 11koa, Arrantza Politika Erkideari buruzkoa, zeinaren bidez Kontseiluaren 1954/2003 (EE) eta 1224/2009 (EE) Erregelamenduak aldatzen diren, eta Kontseiluaren 2371/2002 (EE) eta 639/2004 (EE) Erregelamenduak eta 2004/585 (EE) Erabakia indargabetzen diren.



II. SARRERA

4. 2020ko martxoaren 14an, alarma-egoera deklaratu zen COVID-19 gaixotasunak sortutako osasun-krisia kudeatzeko; alarma-egoera horrek, 6 luzapenen bidez, 100 egun iraun zuen, ekainaren 21era arte⁶.

Aldi horretan, gaixotasunaren kutsatze-erritmoa geldiarazteko zenbait neurri hartu ziren, besteak beste, pertsonen zirkulazioa murriztu zen –baina oinarrizko produktuak erosteko edo beste arrazoi batzuentzako joan-etorriak onartzen ziren– eta jarduera mugatu zuten zenbait eremu ekonomikotan.

Praktikan, alarma-egoerak herritarren konfinamendua ekarri zuen, jarduera ia guztiz geldiarazi zuen sektore askotan –esaterako, ostalaritzan eta jatetxeetan–, eskola-jarduera presentziala eten zuen eta mota guztietako kultura-, arte- eta kirol-jarduerak bertan behera geratu ziren. Murrizketok indartzeko, funtsezkoak ez ziren jarduera ekonomiko guztiak eten ziren martxoaren 30etik apirilaren 9ra; horren guztiaren ondorioz, pertsonen mugikortasuna nabarmen murriztu zen martxoaren bigarren hamabostaldian eta apiril osoan.

Maiatzaren 4tik aurrera, neurriok egokitzen joan ziren 4 fasetan (konfinamendua leuntzea), eta Euskal Autonomia Erkidegoan mugarri hauek izan zituen:

- maiatzak 4: 0. fasea edo prestaketakoa.
- maiatzak 11: 1. fasea edo hasierakoa (jarduera batzuen hasiera partziala)
- maiatzak 25: 2. fasea edo tartekoa (lokalen irekiera, edukiera mugatuta)
- ekainak 8: 3. fasea⁷ edo aurreratua (mugikortasun orokorra malgutzea)
- ekainak 19: alarma-egoeraren indarraldiaren amaiera; indarririk gabe geratu ziren EAEn hartutako neurri murriztaile guztiak⁸.

Alarma-egoera amaitu ondoren, «normaltasun berria» ezarri zen, edukiera-mugak eta sektorekako prebentzio-neurri espezifikokoak barne hartzen zituzten neurrien multzo baten bidez.

⁶ [476/2020](#) Errege Dekretua, martxoaren 27koa; [487/2020](#) Errege Dekretua, apirilaren 10ekoa; [492/2020](#) Errege Dekretua, apirilaren 24koa; [514/2020](#) Errege Dekretua, maiatzaren 8koa; eta [555/2020](#) Errege Dekretua, ekainaren 5ekoa, zeinaren bidez luzatzen baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera (COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko deklaratu baitzuen alarma-egoera hori).

⁷ [13/2020 Dekretua](#), ekainaren 7koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez trantsizio-prozesuaren 3. fasea kudeatu eta aplikatzeko arauak ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

⁸ [Agindua, 2020ko ekainaren 18koa](#), Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko diren prebentzio-neurriei buruzkoa, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 3. fasea gainditu eta gero.



5. Alarma-egoeraren deklarazioak berehalako eragina izan zuen etxeetako kontsumo-ereduetan, konfinatzeko aginduaren eta merkatura heltzeko mugen ondorioz.

Eskaintzaren alderdiak, bestalde, muturreko murrizketei egin behar izan zien aurre, eta, ondorioz, merkataritza-banaketaren kasuan, txikizkako saltokien % 46 inguru itxita egon zen eta online soilik saldu ahal izan zuten⁹.

6. Elikagaien eta antzeko oinarrizko produktuen kasuan, koronabirusak eragindako jarduera-etenak ez zuen eraginik izan handizkako eta txikizkako banaketan. Era berean, neurri bereziak hartu zituzten garraioaren arlorako, produktuak jatorritik helmugara iristen zirela bermatzeko.

Esparru horretan, elikagaien sektorea soilik hazi zen –EAEn, % 8,1 hazi zen apirilean, eta salmenten urteko hazkunderik handiena izan zen autonomia-erkidegoen artean¹⁰– eta, bereziki, produktu freskoak, baina modu heterogeneoan. Hala, adibidez, Mercados Centrales de Abastecimiento de Bilbao SA (Mercabilbao) sozietatean, martxoan eta apirila artean, konfinamendugaraietan, aurreko urteko aldi berean baino 2.331 tona fruta eta barazki gehiago saldu-erosi ziren; aldiz, arrain eta itsaskietan % 13,7ko beherakada izan zen, «antxoaren kostera atzeratu zelako eta hotel, jatetxe eta kafetegiak itxi zirelako, baita konfinamenduaren hasieran arrantza-portuetako hornikuntzan geldialdia egon zelako ere»¹¹.


Saldutako kantitateetan aldaketak bezala, igoera handiak egiaztatu ziren prezioetan EAEn, apirilean: % 1,2 martxoaren aldean eta % 3,9 aurreko urteko apirilaren aldean, eta joera ez zen uztailean arte apaldu. Produktuok, nolana ere, KPI orokorraren ginetik igo ziren, zeina 2020ko martxotik aurrera balio negatiboetan egon zen.

⁹ INE <https://ine.es/daco/daco42/daco4215/ccm0420.pdf>

¹⁰ INE <https://ine.es/daco/daco42/daco4215/ccm0420.pdf>

¹¹ [El Correo](#)

MERCABILBAO («[MERCABILBAO merkaturatutako 135.568 tonara heldu da urteko lehenengo seihilekoan](#)»)



Iturria: EIN

Elikagaien prezioen bilakaera horren atzean, eskariarekin lotutako faktoreez gain, eskaintzari dagozkionak ere egon daitezke, eskulana aurkitzeko zailtasunarekin edo garraioaren arloko murriztapen batzuekin lotuta¹². Gainera, Fabrikatzaile eta Banatzaileen Elkartearen (AECOC) arabera, jatorriko kostuak igo ziren banaketaren sektorean, «erantzun azkar eta eraginkorra» emateko xedez, kontsumitzaileen eskaria izugarri igo zelako koronabirusaren krisiaren lehenengo asteetan¹³.

Inguruabar horiek egoera azaltzeko nahikoak ez balira, merkatuko lehiaren kontrako jardunbideak ere aipa litezke, esaterako, eragile lehiakideen artean prezioak adostea edo nagusikeriazko abusua, prezioak inposatu edo ekoizpena mugatuz; bi kasuetan, kontsumitzaileei kalte bidegabea eragiten zaie.

7. Elikagaien prezioen igoera, Estatuan, elikagai fresko eta galkorretan gertatu zen nagusiki. OCUn arabera, % 5era helduko zen¹⁴; hala, «lekale eta barazki fresko eta hoztuek» % 10,4ko igoera izan zuten apirilean –aurreko hilabetearen aldean– eta «fruta fresko eta hoztuek» % 7,9koa, maiatzean¹⁵.

8. Barazki freskoen eta beste elikagai fresko batzuen prezioen gorabeherak, oro har, jarduera horien berezko ezaugarri bat dira; izan ere, zenbait baldintzek (klimatologikoek, fitosanitarioek, itxaropenek, merkataritza-estrategiek...) eragina izan dezakete merkatuko bi indarretan, hots, eskaintzan eta eskarian, eta prezioetan gorabeherak sor ditzakete, ondorioz.

¹² Espainiako Bankua. [2019ko urteko txostena](#).

¹³ [ABC](#)

¹⁴ Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundea (OCU). 463 Compra Maestra, 2020ko azaroa.

¹⁵ INE. Konsumoko Prezioen Indizea (KPI), Azpiklaseak, Hilabete aldakuntza. (Ez da ezagutzen autonomia-erkidegoen araberrako banakapena).



9. Nekazaritzako elikagaien prezio-igoera horiek balio-kate osoan zehar metatu ahal izan dira –ekoizten direnetik kontsumitzailera heltzen diren arteko mailetan–, edo katebegiren batean.

Balio-katearen eskema orokorra katebegi hauetan laburbildu daiteke: ekoizpena, eraldaketa, handizkako banaketa, txikizkako banaketa eta kontsumoa¹⁶.

Txosten honetan, handizkako faseari erreparatu zaio, analisia bertatik abiatuta, banaketa-katean zehar gerta daitezkeen igoerak topatzeko. Prezioen bilakaeran gorabehera nabarmenak ikusi zaizkien produktu freskoetan, besteak beste azterketa erkatu bat egin da balio-katean atzera –ekoizpenerantz–, merkatu horietako berezko lehia-baldintzek azaltzen ez dituzten desbiderapenak hautemateko.

Horretarako, kontuan hartu behar da nekazaritzako elikagaien merkatuen bereizgarri direla atomizazioa, eskariaren zurruntasuna, merkatuaren urtarokotasuna eta barneko ezaugarrien heterogeneotasuna eta asimetria. Gainera, produktu galkorren kasuan, komertzialtasuna mugatua da halabeharrez, eta egoeraren mende daude beste jarduera-adar batzuk baino nabarmenago, eta, ondorioz, desoreka gehiago izan ditzakete¹⁷.

III. HANDIZKAKO BANAKETA MERCABILBAO

10. EAEn, elikagai freskoen handizkako banaketaz arduratzen dira hauek:

- ⇒ MERCABILBAOn –MERCA-sarearen barruan– eta antzeko beste merkatu batzuetan (Donostiako Merkabugati, Merca Oiartzun eta Gasteizko fruta, barazki eta berduren handizkako merkatua) jarduten duten handizkako merkatariak
- ⇒ sare horietatik kanpo, helmugan handizkako merkatarik gisa jarduten dute beste bitartekari batzuk
- ⇒ banaketako plataformak (supermerkatu eta hipermerkatuekin lan egiten duten logistika-guneak)
- ⇒ hurbileko merkataritza

11. MERCABILBAO –MERCASA enpresa publikoak kudeatzen du (% 40) Bilboko Udalarekin batera (% 60)– kanal estrategikoa da produktu galkorren horniduran, eta are estrategikoagoa, etxeetako kontsumoa soilik hartzen bada kontuan, hori baita Merca-sarean pisurik handiena duen eskaria. Sare hori fruta eta barazkien

¹⁶ Kataluniako Lehiaren Agintaritzaren (ACCO) «[Reflexiones sobre competencia en la cadena agroalimentaria](#)» txostenean xehetasun gehiago ematen dira.

¹⁷ MLBN. «[IPN/CNMC/015/20](#) Txostena, Elikakatearen Funtzionamendua Hobetzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea aldatzen duen lege-aurreproiektuari buruzkoa».



eta arrain eta itsaskien banaketan nabarmentzen da (Espainian kontsumitzen den guztizkoaren % 65 eta % 50, hurrenez hurren)¹⁸.

MERCABILBAO EAEko handizkako merkatu zentral bakarra da, eta elikagai galkorren banaketa-zentrorik handiena Iberiar Penintsula iparraldean eta Frantzia hegoaldean. Guneak 13 ha-ko azalera du eta, bertan, ehun bat handizkako merkatarik jarduten dute, zeinek urtero 250.000 tona elikagai merkaturatzen dituzten, Euskadiko eta eskualde mugakidetako 3 milioi pertsonara heltzen direnak¹⁹.

Handizkako salmentak denda tradizionalentzat eta hotel, jatetxe eta tabernentzat izaten dira, baina saltegi handiak ere hornitzen dituzte.

12. MERCABILBAOk produktu freskoen bitartekaritzan duen garrantziak aukera ematen du hurbilketa fidagarri bat egiteko merkatu horiek alarma-egoeran eta aurreko eta ondorengo hilabeteetan izandako portaerara.

IV. PRODUKTU GALKORRAK: PREZIOAK ETA KANTITATEAK

13. MERCABILBAOn, produktu galkor salduenen barietateen ²⁰ eta antxoaren prezioen («ohiko prezioen») eta kantitateen bilakaera aztertu da –hedabideetan salatu zen jatorrian prezioek behera egin zutela, baina jaitsiera hori ez zela heldu kontsumitzaileengana–.

MERCABILBAO: PRODUKTU GALKORRAK.		
KATEGORIA (AZPIKATEGORIA)	PRODUKTU GALKOR SALDUENA	AZTERTUTAKO BARIETATEA
Frutak eta barazkiak	Laranja	Lane late laranja Salustiana laranja zuria
	Banana	
Barazkiak	Patata	Spunta patata
		Claustar patata
		Kennebec patata
Arraina eta itsaskiak (arrain freskoa)	Legatza	Kako edo tertzako legatza (1.500-2.400) Arrasteko legatza (1.500-2.400)
Arraina eta itsaskiak (itsaski freskoa)	Muskuilua	
Arraina eta itsaskiak (izoztua)	Txipiroi izoztua	
Erabilera anitzeko beste produktu batzuk	Arrautzak	
	Esnea	

Produktuon artean, bi motatakoak bereiz daitezke: baldintza klimatikoan, fitosanitarioen, itxaropenen, eta merkataritza-estrategien ondorioz prezio gorabeheratsuak izaten dituzten «produktu freskoak» (laranja, banana, patata,

¹⁸ MERCASA – [2017ko Urteko Txostena](#)

¹⁹ MERCABILBAO [2019ko Jasangarritasun Memoria](#)

²⁰ MERCABILBAO [2019ko Jasangarritasun Memoria](#)



legatza, etab.) eta prezio egonkorak izaten dituzten «kontsumorako produktuak» (esnea, arrautzak, muskuiluak, etab.).

14. Alarma-egoeran (11.-25. arteko asteetan) eta aurreko eta ondorengo 10 asteetan prezioek izandako bilakaerari dagokionez, honako hau ondorioztatu da:

1. Ez da gorabehera nabarmenik ikusi hauetan:
 - txipiroi izoztua
 - arrautzak
 - esnea
 - legatza («1.500-2.400, kakokoa» eta «1.500-2.400, arrastekoa»)
 - muskuilua
 - patata
2. Aldaketa deigarriak ikusi dira honako hauen prezioen bilakaeran:
 - laranja
 - banana
3. Antxoari dagokionez, jatorrian prezioa merkatu denez, handizkakoetan ere hala gertatu da, eskaintza ohi baino handiagoa izan delako.

Jarraian, egindako azterketa azalduko dizuegu.

1. Antxoa

15. Komunikabideetan²¹ salatu zenez, prezioak jatorrian merkatu ziren («Ondarroan, batez beste 0,38-0,40 euro ordaindu dira, aurreko urteko preziotik oso urrun, 1,80 euro inguru ordaindu baitzen EAEko lonjatan», «Antxoaren balioa kilo bakoitzeko sei zentimora jaitsi zen portu batzuetan») eta jaitsiersa hori ez zen heldu azken kontsumitzaileengana. Adierazitako prezioa antxoa txikiarena genuke, handia (40-42 ale –pieza kiloko–) kiloko 2,65 eurora iritsiko baitzen.

16. Hau ikusi da:


- Salmentak (kilotan) 2019-2020: hemengo atxoaren salmentak, 2020an, 2019koen gainetik egon dira, erabateko konfinamenduaren lehenengo 4 astei (12.-16.) dagokien aldiaren izan ezik (2020/03/20-2020/04/17). Harrapaketen hazkundeak eta arrantzaleek prezio baxuengatik (0,60 €/kilo) egindako salaketak bat datoz jarduera ekonomikoa partzialki berriz hasi zen datarekin, hots, 2020ko apirilaren 13arekin (16. astea).

²¹ Besteak beste, egunkari hauetan argitaratutako informazioaren arabera: [El Correo](#), [El Diario Vasco](#) eta [20minutos](#).



- 2019-2020 aldiko prezioak: prezioek behera egin zuten 16. astean antxoa gehiago sartu ondoren, eta urteko baxuenetako batzuk izan dira, gehiago harrapatu denez.

Nolanahi ere, 2020ko prezioak 2019koen gainetik egon ziren 18. astera arte, nahiz eta harrapaketak handiagoak izan (12-16 asteetan izan ezik).



17. Ondorioz, jatorrian prezioak merkatuta, handizkakoetan berdin, eskaintza handiagoa zelako eta, beraz, ez da ikusten banaketa-katean prezioen gehiegizko gorakadaren inolako zantzurik.


2. Txipiroi izoztua

18. Emandako informazioan ez dira bereizten txipiroi izoztuaren barietateak.

Hau ikusi da:

- 2020an, txipiroiaren kontsumoa 2019an baino txikiagoa izan zen, une zehatz batzuetan izan ezik. Bilakaera antzekoa izan zen bi urteetan, eta kontsumo handikoaldiak izan zituzten bereizgarri.
- Ez zen egon alarma-egoeraren ondoriozko aldaketarik prezioetan. Izatekotan ere, alarma-egoeraren deklarazioa bat etorri zen prezioen jaitsierarekin, zeinak zenbait astez iraun zuen.

2020ko prezioak 2019koen gainetik egon ziren, 2019ko azken hiruhilekotik aurrera prezio ohikoenak 7 eurotik gora kokatu zituen igoerarekin jarraituz.




3. Arrautzak

19. Emandako informazioan ez dira bereizten arrautza motak.

Hau ikusi da:

- 2019an eta 2020an antzeko kantitateak saldu ziren, urteko 4 lehenengo asteetan izan ezik.
- Alarma-egoeraren deklarazioak ez zuen eraginik izan prezioetan eta egonkor mantendu ziren, produktu honen joerari jarraikiz; alabaina, jaitsiera bat egon zen 2020ko 17. eta 18. asteetan.



4. Esnea



20. Emandako informazioan ez dira bereizten esne motak.

Hau ikusi da:

- Nahiz eta 2020aren hasieran salmentak 2019koak baino gutxiago izan, alarma-egoerak esne-salmentak handitu zituen, 2019ko mailara heldu arte – baita gaingitu ere, lehenengo asteetan–; gero, aurreko urtearen antzeko bilakaera izan zuten.



- Salbuespenak salbuespen, 2020ko prezioak egonkor mantendu ziren, 2019an bezala, baina litroko 10-15 euro-zentimo garestiago.





5. Muskulua

21. Emandako informazioan ez dira bereizten muskuilu barietateak.

Hau ikusi da:

- Salmenten bilakaera, kantitateari dagokionez, antzekoa izan da bi urteetan. Hamabigarren astetik aurrera, % 15 inguruko jaitsiera egon zen 2019aren aldean, eta salmentak lehengora itzuli ziren 15. astean.
- Prezio ohikoek ez zuten aldaketarik izan 2019an eta 2020an, eta pandemiak ez zuen horietan eraginik izan.
- Astean-astean ordaindutako gehieneko eta gutxieneko prezioetan, joera egonkor bertsua ikusi zen, baina gutxieneko prezioek gorakada txiki bat izan zuten alarma-egoera deklaratu aurreko astean.




6. Legatza

22. Legatzaren bi barietate salduenen salmentak aztertu ziren: «1.500-2.400, kakokoa» (salmenten % 54) eta «1.500-2.400, arrastekoa» (% 30).



Hau ikusi da:

- Merkaturatutako kantitateak eta horien bilakaera antzekoak izan ziren 2019an eta 2020an.
- «1.500-2.400, kakoko» legatzean prezioen gorakada bat ikusi zen hamabigarren eta hamabosgarren asteetan, eta antzeko bilakaera egon zen 2019an.




7. Laranja


- 23.** Laranjen «lane late», «salustiana zuria» eta «Valentzia late» barietateak aztertu dira, zeinak aztertutako 35 asteetan laranjen salmenten % 71 izan ziren.
- 24.** Alarma-egoera bat etorri zen «lane late» eta «salustiana zuria» barietateen sasoi-amaierarekin eta «Valentzia late» barietatearenaren hasierarekin –2019an baino lehenago iritsi zen–.
- 25.** Hau ikusi da:
- Salmentak (kilotan) 2019-2020: hiru barietateen banakako bilakaera eta bilakaera metatua antzekoa izan zen bi urteetan, baina 2020an laranja «salustiana zuria» barietatearen sasoi-a 2019an baino lehenago amaitu zen (16. astean), eta bat etorri zen «lane late» barietatearen salmenten gorakada batekin eta «Valentzia late» barietatearen iritsierarekin.
 - 2019-2020 aldiko prezioak:
 - o «Lane late» barietatea: alarma-egoera deklaratu ondoren prezioak gora egin zuela ikusi da –15 c€/kg bost astetan, 0,7 €/kg-tik 0,85 €/kg-ra–; hala, 21. asterako (1,37 €/kg) 67 c€/kg-koa zen igoera, eta ez zen ia jaitsi sasoi-amaierara arte.
- 2020an, konfinamenduaren aurreko asteetan dagoeneko prezioa 2019an baino altuagoa zen arren, hamaikagarren astean aldea areagotu egin zen.



- «Salustiana zuria» barietatea: prezioen igoera (0,15 €/kg, 0,6 €-tik 0,75 €-ra) «lane late» barietateak izandakoaren antzekoa izan zen, baina astebete geroago hasi zen eta sasoi-amaierarekin gelditu zen, 17. astean.
- «Valentzia late» barietatea: sasoi-hasieratik, prezioa 2019an baino handiagoa izan zen, gutxienez, 0,4 € gehiagokoa (18. astea).



Handizkakoetan prezioek izan duten bilakaera eta batez besteko prezio egokituek jatorrian izan dutena alderatzen badira, ikus daiteke joera antzekoa izan zela –nahiz eta «lane late» barietatearen prezioak «salustiana» barietatearenak baino pixka bat baxuagoak izan jatorrian–.



Iturria: Nekazaritzako Ministerioa. Egoeraren asteko txostena

2020aren hasieran, zitrikoen 2019ko prezioekiko urtearteko desberdintasun handiek berdin jarraitu zuten²², 2018/2019 kanpaina txarra izan zenez, alegia,

²² Estatuko asteko batez besteko prezioen hileko batezbestekoak.

prezio-igoera nabarmenik gabea²³. Martxoan, hots, alarma-egoera dekretatu zen hilabetean, ez zen aldaketa handirik ikusi otsailarekin alderatuta; aldiz, apirilean, euritsua eta freskoa izan ohi da, zitrikoen eskari handia izan zen Estatuan eta Europan, eta horrek, beste arrazoi batzuekin batera, batez besteko prezioen igoera nabarmena ekarri zuen jatorrian, martxoaren aldean. Igoera horiek areagotu egin ziren maiatzean.

OCUren arabera, laranjaren amaierako prezioak sasoiaren amaiera zelako igo ziren.



26. Ondorioz, EAEn ez da hauteman prezioetan merkatuaren berezko dinamikaz bestelako inongo bilakaeraren inolako zantzurik; gainera, laranjaren sasoiaren amaierak markatzen du dinamika hori.

8. Patata

27. Patataren «spunta» (% 72), «claustar» (% 14) eta «kennebec» (% 6) barietateak aztertu ziren, 2020ko lehenengo 35 asteetako patata-salmentaren % 92 barietate horietan egin baitzen.

Hau ikusi da:

- Merkaturatutako kantitateak eta bilakaera antzekoak izan ziren 2019an eta 2020an.
- 2020ko prezioak 2019koak baino baxuagoak izan ziren eta ez zen aldaketa nabarmenik ikusi urteko eta urtearteko bilakaeran.



9. Banana


28. MERCABILBAOk emandako informazioan ez dira bananen barietateak bereizten; nolahi ere, bananotik bereizten da (baterako salmenten % 9 da).

²³ NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. [Estatistikako Hileroko Aldizkaria](#). 2020ko martxoa, 2020ko apirila, 2020ko maiatza, 2020ko ekaina.




Hau ikusi da:

- Salmentak (kilotan) 2019-2020: alarma-egoera deklaratu ondoren, lehenengo asteetan (12.-14.) salmentak % 5 igo ziren, eta une horretatik aurrera 2019koen gainetik jarri ziren, aste zehatz batzuetan izan ezik.
- 2019-2020 aldiko prezioak: 2020ko lehenengo hiruhilekoko prezioak 2019koak baino txikiagoak izan ziren, baina alarma-egoera deklaratu zenetik igotzen hasi zen; hala, 12. astearen (2020/03/22) eta 14.aren (2020/04/03) artean, prezioak 30 c€ igo ziren (1 €/kg-tik 1,3 €/kg-ra), eta aldea 40 c€-koa izatera iritsi zen 20. astean (2020/05/15).




Gainera, ikusi da alarma-egoera deklaratu ondorengo astetik aurrera:

- MERCABILBAOn ezarritako preziorik ohikoenak erreferentziako MERCAAtakoak baino garestiagoak ziren, ordura arte merkeagoak izan arren.



Iturria: MERCASA. Prezioak eta Handizkako Merkatuak

- MERCABILBAOko preziorik ohikoenen bilakaera jatorrian izandako joeratik aldendu zen; bereziki, alarma-egoera deklaratu zenetik aurrera.



Iturria: Nekazaritzako Ministerioa. Egoeraren asteko txostena

- 29.** Ondorioz, MERCABILBAOn, konfinamenduaren hasieran bananaren prezioa nabarmen igo zela eta gero mantendu egin zela ikusten da; gainera, prezio hori beste MERCA batzuetako gehieneko zenbatekoaren gaineratik egon zen –alarma-egoeraren aurreko asteetan ez bezala– eta hori ez litzateke prezioek jatorrian aurretiaz izandako igoeren zuzeneko ondorio.

V. ONDORIOA

- 30.** COVID-19ak eragindako pandemia geldiarazteko premiagatik, alarma-egoera deklaratu zen 25 astez eta, horren ondorioz, besteak beste, herritarrak konfinatu ziren eta jarduera ekonomikoaren zati handi bat eten zen.

Testuinguru horretan, elikagaien prezioak KPI orokorraren oso gaineratik igo ziren eta KPIa, aldiz, ehuneko negatiboetan jarri zen. Elikagaien artean, bestalde, produktu freskoen goranzko bilakaera nabarmendu zen, bereziki.

- 31.** Pandemiak sortutako egoera berezian, are premiazkoago bihurtu zen lehiaren arloan debekatutzat jo zitezkeen jarrerak zaintzea, are gehiago kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko funtsezko ondasun eta zerbitzuetan eragina izan lezaketenei zegokienez, esaterako, elikadura eta, zehazki, produktu freskoak, funtsezkoak baitira dieta osasungarri bat izateko, are gehiago konfinamendu-garaian.

- 32.** LEA/AVC erakundeak MERCABILBAOn handizka saldutako zenbait produktu freskoren prezio eta kantitateen bilakaera jarraitu eta aztertu zuen 35 astez; hauek ziren produktuak: antxoa, arrautzak, banana, esnea, laranja, legatza,



muskuilua, patata eta txipiroi izoztua. Produktuok dira MERCABILBAOn (EAEko handizkako merkatu zentral bakarra) gehien saltzen diren elikagai galkorrak, antxoa izan ezik (geroago sartu zen ikerketan, hedabideek salatu zutelako jatorriko prezioen beherakada ez zela kontsumitzaileengana iritsi.

Produktu horien artean, deigarria da laranjen eta bananen handizkako prezioen bilakaera. Laranjaren kasuan, prezioen igoera justifikatzen zuten zenbait egoera egon ziren, baina ez zen hori gertatu bananarekin, printzipioz. Hain zuzen ere, MERCABILBAOn, konfinamenduaren lehenengo asteetan, bananaren prezioak nabarmen egin zuen gora (30 c€/kg), beste MERCA batzuetako gehieneko balioaren gainetik –alarma-egoeraren aurreko asteetan ez bezala–, eta hori ez zen izan prezioek jatorrian aurretiaz izandako igoeren zuzeneko ondorio.

- 33.** Elikagai freskoen prezioen gorabeherak, oro har, jarduera horien berezko ezaugarri bat dira; izan ere, egoeraren mende daude beste jarduera-adar batzuk baino nabarmenago, eta, ondorioz, desoreka gehiago izan ditzakete, zenbait baldintzek (klimatologikoen, fitosanitarioek, itxaropenek, merkataritza-estrategiek...) eragina izan dezaketelako merkatuko bi indarretan, hots, eskaintzan eta eskarian.

Nolanahi ere, prezioen osaerak beti bat etorri behar du produktu freskoen merkatuetako bakoitzean indarrean dauden lehia-dinamikekin, nahiz eta salbuespenak egon, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak nekazaritza politika erkidearen funtzionamendua bermatzeko eta horren helburuak lortzeko kasu batzuetan ahalbidetu duen moduan.